

HIRUGARREN ORDENANTZA FISKALA

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. Artikulua.- Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak erregulatzen dituen Foru Arauean eta zergaren Foru Arau partikularrean aurrikusitakoaren arabera, Ordenantza honi jarraituaz eskatzen du Ondasun Higiezin gaineko Zerga, eta Ordenantza honen zati den Eranskinean agertzen dira aplikagarri diren tarifak.

2. Artikulua.-

1.- Ordenantza, udal barruti osoan, aplikatuko da.

2.- Baldin eta higiezin bera, udal barruti desberdinetan kokatua, egongo balitz, zerga honen ondorioetarako, udal horietako bakoitzekoa dela ulertuko da, udal barruti bakoitzean okupatzen duen azalera.

II. ZERGAPEKO EGITATEA.

3. Artikulua.-

1.- Zergapeko egitatea sortuko du, ondasun higiezin gainean, bai hiritarren bai landatarren gainean, hurrengo eskubideen titularitatea izateak:

- a) Ondasun higiezin beraren gainean, edo horri atxikita leudekeen zerbitzu publikoen gainean, emakida administratiboa izatea.
- b) Azalerari dagokion eskubide erreala.
- c) Erabilerari dagokion eskubide erreala.
- d) Jabetzari dagokion eskubidea.

2.- Aurreko atalean zehaztu diren eskubideen artetik, egoki litzatekeen zergapeko egitatearen sorrerak erabakiko du, atal horrek ezartzen duen ordenari jarraiki, ondasun higiezina, aurrikusitako beste modalitateetan zergapetu gabe gelditzea.

4. Artikulua.- Hiri-izaerako ondasun higiezinak izango dira:

1.- Urbano edo urbanizagarri sailkatutako lurzorua, ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari dagokion 2/2006 Legean, eta horren garapeneko arautegian aurrikusitakoaren arabera.

Nekazal legerian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurrak ere izaera honetakoak direla ulertuko da, beti ere zatikapen horrek nekazal erabilera hutsaltzen duenean, baina horregatik ez dute beroien landako izaera galtzen beste ondorioetarako, baizik eta bakarrik zerga honen ondorioetarako.

2.- Hiri-izaerako eraikuntzak, eta hurrengo hauek horrela direla ulertuko da:

- a) Eraikin guztiak, edozelakoak direlarik ere eraikitze erabili diren osagaiak, edozein izanik ere kokaturik dauden lekua, edozein izanik ere horiek egin diren lurzoru mota eta ematen zaien erabilera, nahiz eta eraikitze erari dagokionez guztiz garraiagarriak izan, eta nahiz eta horiek kokatuta leudekeen lursaila, eraikinaren jabearena ez izan, eta

baita, horiekin asimilagarriak diren instalazio industrial edo merkataritzakoak, nola diren dikeak, tangak eta kargatzeko tokiak.

b) Urbanizazioko eta hobekuntzako obrak, hain zuzen, lur-berdinketak bezalakoak eta espazio zabalak erabiltzeko egiten direnak, eta horrela direla ulertzen da azoketara destinatutako barrutiak, estalperik gabeko gordailuak, presak, ur-jauziak eta urtegiak, horien ibilguak barne hartuta, kirola egiteko zelai edo instalazioak, kaiak, aparkalekuak eta eraikinei loturik dauden espazioak.

c) Hurrengo artikuluan, landatar gisa sailkatu gabe leudekeen eraikuntza guztiak.

5. Artikulua.- Landa-lurretako ondasun higiezinak bezala hartuko dira:

1.- Aurreko artikuluko a) letran xedatutakoaren arabera, hiri-izaerako ondasun gisa sailkatu ez diren lursailak.

2.- Landa izaerako eraikuntzak, eta horrela direla ulertuko da, laborantza izaerako eraikin eta instalazioak, baldin eta landa izaerako lursailetan egonik, laborantza, abeltzaintza edo basogintzako hustiaperenaren garapenerako ezinbestekoak balira.

Ez dira inola ere eraikin gisa hartuko, zerga honen ondorioetarako, laborantza, abeltzaintza edo basogintzako hustiaperetan erabiltzen diren oholtza eta estaluneak, horiek garrantzi txikikoak direnean, hain zuzen ere horien eraikuntzan erabilitako materialen izaera arina eta iraupen gutxikoa izatearren, bakarrik ondorio hauetarako balio badute, hots, lurraren aprobeixamendu handiagoa lortzeko, laboreen babeserako, ganadua denbora batean aterbetzeko jenderik bizi ez den eremutan, edo jarduerarenak diren eta horren zerbitzura eta eraginpean dauden tresna edo lanabesak gordetzeko direnean, ez dira ere zergapeturik egongo eraikin bezala, landa izaerako lursailen barnean egindako obra eta hobekuntzak, horiek lur horien balio banaezinaren zati balira.

III. ZERGAPETU GABEAK

6. Artikulua.- Ez daude zerga honek zergapetuta:

1.- Errepideak, kaminoak, lurreko gainontzeko bideak, eta jabari publikokoak diren ondasun hidrauliko eta lur-itxasokoak, baldin eta horiek aprobeixamendu publikokoak eta doakoak balira.

2.- Hurrengo ondasun higiezinak, horiek zein udalerritan kokatuak leudekeen kontuan hartuta, udal horien jabetzakoak direnak:

1.- Jabari publikokoak izanik, erabilera publikora atxikitakoak.

2.- Jabari publikokoak izanik, Udalak zuzenean gestionatutako zerbitzu publikora atxikitakoak, salbu eta hirugarren bati lagatako higiezinak liratekeenean, kontraprestazio moduan.

3.- Ondarezko ondasunak, hala ere aurrekoan bezala, kontraprestazio moduan, hirugarren bati lagatakoak izan ezik.

IV. SALBUESPENAK

7. Artikulua.-

1.- Hurrengo ondasunek salbuespenak izango dituzte:

- a) Bai Estatuaren, Bai Euskadiko Autonomia Erkidegoaren, bai Bizkaiko Lurralde Historikoaren bai Toki-Administrazioaren jabetzakoak liratekeenak, eta zuzenean defentsara, hiritarren segurtasunera eta, hezkuntza eta kartzela zerbitzuetara atxikita baleude.
- b) Herri-ondasunak eta manu komuneko auzo-mendiak.
- c) Hazkunde moteleko espezieak landaturik dituzten mendiak, horiek titularitate publikokoak nahiz pribatukoak izan.

Salbuespen honek otsailaren 2ko 152/1996 Errege Dekretuaren 1., 2. eta 3. Eranskinetan aipatutako hazkunde moteleko espezieak hartzen ditu barne, horien aprobetxamendu nagusia zura eta kortxoa denean, eta horiek betetzen duten mendi-zatia hartzen dute barne, baldin eta zuhaitzen dentsitatea, espezie horri dagokiona edo espezie horrentzat normala dena, balitz.

Halaber, aurreko paragrafoan sartzen ez diren mendiak, finka horietako zati berrituei dagokionez, baldin eta Gorporazioek, Elkarteez edo partikularrek baso-berritzeak egin badituzte, eta baita Administrazioak basogintzari buruz onetsitako ordenazio-proiektuei edo plan teknikoei lotutako zuhaitzien birsorkuntzarako tartearak direnean. Letra honetan aurrikusitako salbuespenak hamabost urtetako iraupena izango du, eta hori kontatuko da, eskaria egin ondorengo zerga-alditik aurrera.
- d) Eliza Katolikoarenak, Ekonomia Gaiei buruz, Espainiako Estatuaren eta Egoitza Santuaren arteko itunean aurrikusitako terminoetan, hori 1979ko urtarilaren 3koa da.
- e) Elkarrekin Konfesional ez katolikoarenak, lege aldetik ezagutuak direnean, eta hain zuzen, izenpetutako lankidetzak-akordio bakoitzean ezarritako terminoetan, horiek Espainiako Konstituzioaren 16. artikuluan aipatzen dira, eta bakoitzari legokion akordioaren terminoetan.
- f) Gurutze Gorrikoak eta araubidez zehaztutako diren Erakunde parekagarriak.
- g) Atzerriko Gobernuarenak, beren ordezkaritza diplomatiko edo kontsularrarentzako edo bere erakunde ofizialentzako dituztenean, baldin eta elkarrekikotasuna balego edo indarrean leudekeen Nazioarteko Hitzarmenen arabera eginez gero.
- h) Indarrean dauden Nazioarteko Hitzarmenen arabera, salbuespena aplikatu lekiekeen Organismo edo Erakundeak direnean.
- i) Trenbideek okupatzen dituzten lursailak eta horietan kokaturik dauden eraikinak, baldin eta geltokira, biltegira edo aipatu bideen hustiapenerako ezinbestekoa den beste zerbitzu batera destinatutakoak baleude. Ez daude salbuetsita beraz, ostalaritzako establezimenduak, ikuskizunetakoak, merkataltegiak eta aisiadiraikoak, enplegatuen etxebizitzara destinatutakoak, Zuzendaritzaren bulegoak eta ezta ere fabriketako instalazioak.

- j) Monumentu izaera luketen ondasun higiezinak, uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikuluko 2. ataleko a) letran adierazitakoaren arabera, lege hori Euskal Ondare Kulturalari buruzkoa da. Salbuespen honek bai ondasun kultural kalifikatuak bai inbentariatuak hartzen ditu barne, baldin eta aipatu uztailaren 3ko 7/1990 Legean erabakitako baldintzak betetzen badituzte.

Baita salbuetsiak egongo dira, monumentu-multzo bateko zati diren ondasun higiezinak, uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikuluko 2. ataleko a) letran adierazitakoaren arabera, lege hori Euskal Ondare Kulturalari buruzkoa da. Salbuespen honek, bakarrik, hurrengo higiezin kalifikatuak edo inbentariatuak hartuko ditu barne, hain zuzen, aipatu uztailaren 3ko 7/1990 Legean zehaztutako baldintzak betetzeaz gain, babes berezi edo babes ertaineko erregimenean barne sartuta leudekeenak.

Halaber, salbuetsita egongo dira arkeologia eremu baten barruan leudekeen ondasun higiezinak, uztailaren 3ko Euskal Ondare Kulturalari buruzko Legearen 44. artikuluan aipatzen direnak, Ondare Kultural gisa deklaratu izatearren, eta hori bai kalifikatua bai inbentariatua izan daiteke, eta baldin eta arkeologiako esku-hartzeren baten ondoren, Eusko Jaurlaritzako dagokion Sailak, horietan, aurkitutako hondakinak mantentzeko premia ezarri balu, eta horiek ezin badaitezke ez ezabatu ez lekualdatu.

- k) Hezkuntza-ituneko erregimenera atxikitako ikastetxe pribatuak, itunpeko ikastetxearen izaera mantentzen duten bitartean.

- l) Gizarte ekintzatarako bakarrik erabiltzen diren ondasun higiezinak.

- m) Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearenak liratekeenak.

2.- Zergaren bilketako kudeaketan eraginkortasuna eta ekonomia bilatzeko bidean, salbuetsiak egongo dira, kuota likidoa 6 eurotik gorakoa ez duten hiri eta landa ondasun higiezinak.

V.- SUBJEKTU PASIBOA

8. Artikulua.-

8.1.- Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, eta Lurralde Historikoko Zergen gaineko Foru Arau Orokorreko 34. artikulua aipatzen dituen erakundeak, baina baita, testamendua egiteko ahalmena erabiltzeke leudekeen oinordekotzak, horiek eskubidearen titularitatea balute, eta kasu bakoitzean, zerga honen zergapeko egitatea den bezainbatean.

2.- Aurreko artikuluan erabakitakoa, subjektu pasiboaren ahalmenenari kalterik eragin gabe, aplikatuko da, hain zuzen, jasandako tributuaren karga besteengan jasanarazteko duen ahalmenaren kalterik gabe, zuzenbide komunean arauen arabera. Udalek zergaren kuota likido osoa hurrengo hauetan jasanaraziko dute, hain zuzen, eta nahiz eta zerga horren subjektu pasiboak izan ez, ondasun demanial edo ondarezko horien erabilera egiten dutenengan, kontraprestazioaren bidez.

Halaber, zergadunaren ordezkioak besteengan jasanarazi dezake horiei dagokien kuota likidoaren zatia, horietako bakoitzak ordaindu behar lukeen kanonaren proportzioan.

3.- Pro indibiso diren ondasunak edo pertsona multzo bati dagozkion ondasunak direnean, zergaren ondorioetarako, subjektu pasiboa erabakitzeke orduan, hori, dagokion elkargoari, atxikikiko zaio, horri dagokion zerga identifikazioko kodeari legokion izenari jarraiki.

Aipatu erakundeetako jabekide, partaide edo elkartekide bakoitzaren identitatea eta parte-hartzeko kuota, Higiezinaren Katastroan jasoaraziko da, haiek aho batez erabaki ondoren, esanbidez, horrela eskatuko balute. Halaber, ganantzialen sozietateko erregimenean leudekeen ezkontideek eska lezakete ezen, Higiezinaren Katastroan, horietako bakoitzaren identitatea ager dadila.

9. Artikulua.-

1.- Zerga honen zergapeko egitatea sortzen duten eskubideen titularitatean, aldaketaren bat suertatuko balitz, edozein izanik ere horren arrazoia, eskubide horien objektu diren ondasun higiezinak zerga-kuota osoa ordaintzera atxikirik geratuko dira, martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 80. artikuluan aurrikusitako terminoetan, arau hori baita Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga Orokorrak arautzen dituenak. Ondorio horietarako, notarioek informazioa eskatuko dute, eta agerliarrei adieraziko die, zein zor dauden ordaintzeke Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioz, hain zuzen, transmititzen den ondasun higigarriari atxikia.

2.- Erakunde horietako partaide edo titularkideek, zerga honen kuota, elkarren artean, hartuko dute beren gain, eta horietako bakoitzak duen parte-hartzearen arabera proportzioan, martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araueko 34. artikulua dionaren arabera, arau hori baita Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zerga Orokorrak arautzen dituenak, baldin eta Ondasun Higiezinaren Katastroan horrela inskribatuta egongo balira. Inskribatuta egongo ez balira, erantzukizuna, edozein kasutan, zati berdinean eskatuko da.

V. ZERGA-OINARRIA.

10. Artikulua.-

1. Zerga honi dagokion zerga-oinarria ondasun higiezinaren katastro-balioak eratzen du.

2.- Katastro balioa balio fiskal higiezin bat da, eta hori, Zerga Administrazioak zehaztuko du era objetiboan, Katastroan dauden datuen arabera. Hori zehazteko, haiek merkatuan duten balioa hartuko da erreferentziazat, eta inoiz ezingo da azken hori baino altuagoa izan

11. Artikulua.-

1 Hiri-izaerako ondasun higiezinaren balio katastrala, lurzoruen eta eraikinen balioak osaturik dago.

2.- Lurzoruen balioa kalkulatzeko orduan, ondasun higiezin horri eragiten dioten inguruabar urbanistikoak eukiko dira kontuan.

3.- Eraikuntzen balioa kalkulatzeko orduan, eraikitzeke baldintza urbanistikoez gain, kontuan hartuko da horren kokapena, horren izaera historiko-artistikoa,

horren erabilera edo xedea, horien kalitatea eta antzinasuna, hala nola balio horri eragina lezaiokeen beste edozein faktore.

12. Artikulua.-

1.- Hiri-lurretako higiezin balio katastrala zehazteko orduan, kontuan hartuko dira, 1969ko balio-ponentzia ezarrita dauden irizpideak, balorazio-taulak eta beharrezko liratekeen gainontzeko elementuak, eta hori egingo da hain zuzen, beste balio-ponentzia berri bat onesten ez den bitartean, eta hori, Egotzi daitekeen Gutxienezko Balioa zehazteko onetsita dauden balorazioko arau teknikoak kontuan hartuta, egingo litzateke, 9/1989 Foru Arauaren 16.2 artikuluan adierazten den bezala, horrek arautzen baitu O.H.Z.-a, bestalde, azken hori 7/2003 zenbakidun Toki Zergen Erregimena Aldatzen duen F.A.-ak aldatu du.

2.- Behin aurreko atalean adierazitako balio-ponentzia onetsitakoan, hiri-lurretako higiezin katastro-balioa erabakitzeke, kontuan izan beharko dira, dagozkion erabileretan, balorazioko arau teknikoak eta, Egotzi daitekeen Gutxienezko Balioa erabakitzeko onetsi den balioen gaineko, esparru-koadroa.

3.- Hiri-lurreko higiezin katastro-balioa, hain zuzen, Egotzi daitekeen Gutxienezko Balioa esleitu gabe luketen erabilerara destinatutakoena, helburu horretarako, bereziki, onetsitako irizpideen eta balioen gaineko esparru-markoaren arabera kalkulatu da. Horiek balorazio-irizpide bezala ere erabili ahal izango dira, balioen egiaztapena egin ahal izateko, eta hori, edozein modutan, nahikotasunez arrazoitua egon behar du.

13. Artikulua.-

1 Landa-izaerako ondasun higiezin balio katastrala, lurzorua eta eraikinen balioak osaturik dago.

2.- Landa-izerako lursailen balioa kalkulatzeko orduan, horien benetako errentak edo potentzialak araubidez ezarriko den interesean kapitalizatuz kalkulatu dira, lurak ekoizpenerako, lurgintzarako eta aprobetxamendurako duen gaitasunaren arabera, eta horien katastroko ezaugarrien arabera.

Errenta horiek kalkulatzeko orduan, kontuan hartu ahal izango dira, nekazal ezaugarri homogeneousun zonalde edo eskualde bakoitzeko errentamendu edo gasaila ikertzetik, lortutako datuak.

Halaber, atal honen ondorioetarako, kontuan izango dira, landa-lurretan egindako hobekuntzak, hobekuntza horiek lur horren balio banezinak direnean, eta bere kasuan, ekoizpenari hasiera eman arte igarotako urteak. Baso ekoizpenak dituzten lur-sailetan, bai landaketaren adina, bai zuhaitz-masaren egoera eta bai aprobetxamendu-aldia kontuan eukiko dira.

Edozein modutara, kontuan hartuko dira aprobetxamendu handiagoa lortzeko xedez aplikatu edo erabili diren ekoizpen normaleko bitartekoak, baina ez da kontuan hartuko aparteko bitartekoen aplikazioa.

Hala eta guztiz, ustiapenaren izaeragatik edo udalerriaren ezaugarriengatik, benetako errentak edo potentzialak ezagutzea zail suertatzen bada, ondasunen katastroko balioa kalkulatu ahal izango da eta barne sartuko dira, horien hobekuntza iraunkorra eta landaketak, laborantzako faktore teknikoak eta ekonomikoak eta afektatzen dioten gaionontzeko inguruabarrak.

3.- Landa-eraikuntzen balioa aurreko artikuluko 2. ataleko arauak aplikatuz kalkulatu da, haien izaerak uzten duen neurrian.

14. Artikulua.-

14.1. Higiezinaren Foru Katastroa Bizkaiko Lurralde Historikoko hiri eta landa lurralde-jabetzaren inbentario eta erregistro bezala taxutzen da, eta horren osaketa, mantenimendua eta berrikuspena Foru Aldundiaren eskumen eskusiboa izango da, baina horrek ez du eragozpenik sortuko Toki Entitateekin edo gainontzeko Herri Korporazioekin izenpetu litezkeen funtzio-ordezkaritzari eta Lankidetzako Hitzarmenei.

2.- Katastroko balioak, Ondasun Higiezinaren Katastroetan dauden datuetan oinarrituz, finkatuko dira.

3.- Landa eta Hiri Ondasun Higiezinaren Katastroan, landa- eta hiri-ondasun higiezinaren datu eta deskripzioak jasotzen dira, hain zuzen ere, jabetzako lurra ezagutaraziko duten eta bere aplikazioak zehaztuko dituen azalera, kokapena, mugak, labore edo aprobetxamenduak, kalitatea, balioak eta gainontzeko inguruabar fisiko, ekonomiko eta juridikoak. Hor jasoko da baita, hiri-izaerako ondasun higiezinaren kopuru finkoa ere, horien identifikazio-kode bezala.

Katastroko Datu Basean jasotako datuak egiazkotasun-presuntzioa izango dute, Tributuen Arautegi Orokorrean araututako terminoen arabera, baina horrek ez die kalterik eragingo, Jabetza Erregistroan jasotako datuek, beste esparrutan, izan ditzaketen ondorio juridikoei.

4.- Foru Arau horretan araututako terminoetan zergapetutako ondasun higiezinak, bakoitzari dagokion Landa eta Hiri Higiezinaren Katastroetan identifikatuta egon behar dute, eta landa lurak direnean, horien erreferentzia katastrala poligono eta partzela bakoitzeko, eta hiri-ondasunak direnean, zenbaki katastral finkoa.

15. Artikulua.- Balio katastralaren ezarpena, berrikuspena, aldaketa eta eguneratzea.

1.- Balio katastralaren ezarpena, berrikuspena, aldaketa eta eguneratzea Foru Arauean aurrikusitako terminoetan egingo da.

2.- Balio katastrala finkatzea honetan datza, hots, Administrazioak, lehenengo bider higiezin gehienei, aipatu balioa ezartzen dien saioa egitea. Horretarako, 9/1989 Foru Arauaren 13. artikuluan ezarritako prozedura bete beharko da, horrek arautzen baitu O.H.Z., zeina martxoaren 26ko 7/2003 F.A.-ak aldatu zuen, hain zuzen, Toki Zergen Erregimena Aldatzen duenak.

3.- Balio Katastralaren berrikuspena honetan datza, hots, Administrazioak, aldioro, aurretik esleitu zuten higiezin gehienei, aipatu balioa zehazten dien saioa. Horretarako, 9/1989 F.A.-ko 13. artikuluan aurrikusitako prozedura jarraitu beharko da, horrek arautzen baitu O.H.Z., eta hori 7/2003 F.A.-k aldatu baitzuen.

4.- Balio Katastralaren aldaketa honetan datza, hots, Foru Aldundiak higiezin bati edo horien multzo bati dagokion balioa zehazteko saioa egitea, eta hori egiten du, hirigintzako planeamendua dela, edo beste inguruabar bat dela, merkatuko balioaren eta hari emandakoaren artean diferentzia handiak daudela nabarmendutakoan. Horretarako, 9/1989 F.A.-ko 14. artikuluan aurrikusitako prozedura jarraitu beharko da, horrek arautzen baitu O.H.Z., eta hori 7/2003 F.A.-k aldatu baitzuen.

5.- Balio Katastralaren eguneratzea honetan datza, hots, Foru Aldundiak, izaera orokorrarekin, balio katastral berriak zehazteko saioa egitea, eta hori egin lezake, lehen indarrean leudekeenei koefizienteak aplikatzearen ondorioz, modu horretan, inflazioaren eraginez balio katastralak zaharkituak gera ez daitezten. Foru Arau bidez, balio katastralak eguneratzea agindu daiteke, koefizienteak aplikatzearen ondorioz.

16. Artikulua.-

1. Partzialki, bi udal barruti edo gehiagotan kokatutako ondasun higiezinak direnean, txosten berezi eta bakar baten aplikazio bidez baloratuak izan daitezke, eta hori higiezin bakoitzarentzat, edo erabilera eta helburu homogeneoko multzo batentzat egina izan daiteke.

2.- Baita, konurbazioa osatzen duten udalerrietan kokatutako ondasun higiezin guztiak, eremu supramunizipaleko txosten bat aplikatzearen bidez, baloratuak izan daitezke,

VII. ZERGAREN KUOTA

17. Artikulua.-

1.- Zerga honen kuota osoa honako hau izango da, hots, zergaren oinarriari zerga-tasa aplikatetik ondorioztatzen dena.

2.- Zerga-tasa Eranskinean agertzen dena izango da.

3.- Merkatal erabilerako hiri-ondasun higiezinak direnean, eta horien balio katastrala 400.000 € eurotik gorakoa denean, Eranskinean adierazitako gehikuntza-tasa aplikatuko da.

4.- Kuota likidoa honela zehaztuko da, hain zuzen kuota osoan, hurrengo kapituluan aurrikusitako hobarien zenbatekoak, bere kasuan, murriztuz.

5.- Baldin eta udalerrri batek, bere higiezinaren zati garratzitsu bati balio katastrala aldatzeko prozedura aurrera eramanez nahiko balu, Katastro eta Balorazio Zerbitzutik balio katastral berriak dituen zerrenda jaso behar du, eta hori jaso beharko du, indarrean sartuko den urtea baino lehenagoko urriaren 15a baino lehen, modu horretan, bilketako aurrikuspenak egin, eta bere intereserako egokienak diren zerga-tasak ezarri ahal izateko.

VIII. HOBARIAK.

18. Artikulua.-

1.- %50eko hobaria izateko eskubidea izango dute, zergaren kuota osoan, baldin eta obra berriari dagokion alta-aitorpenarekin, interesatuek horrela eskatuko balute, urbanizazio, eraikuntza eta higiezinaren sustatze enpresen jarduera duten higiezinak, bai obra berria denean, bai horren parekagarri den birgaiguntzakoa denean, eta ez bada agertzen bere ibilgetuaren ondasunen artean.

Hobari hau aplikatzeko epea, obrak hasten direneko hurrengo zergalditik hasi, eta obra horiek amaitu ondorena arte luzatuko da, beti ere, denbora horretan, urbanizazio-obrak edo eraikuntzakoak egingo balira, baina hala ere ezingo da, inola ere, hiru zergalditik gora luzatu.

2.- Ehuneko 50eko hobaria izateko eskubidea izango du, zergaren kuota osoan, behin-betiko kalifikazioa eman ondorengo hurrengo hiru zergaldietan, babes publikoko etxebizitzak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko arautegiaren arabera, horren mailakoa izan daitekeenak. Hobari hori interesatuaren eskariz emango da, eta eskari hori, hiru zergaldiak irauten duten bitartean, epealdi hori agortu baino lehenagoko edozien unetan egin daiteke, eta ondorioak bere kasuan, eskatu ondorengo hurrengo zergalditik aurrera, izango ditu.

3.- 100etik 50eko hobaria izateko eskubidea izango dute, ondasun higiezin zerga osoaren kuotatik, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuan arautzen den "Etxebizitza hutsaren Programa" barruan lagapena egina duten higiezinak, edo beste foru edo udal programen barruan.

4.- Zergaren kuota osoan %50eko hobaria izateko eskubidea izango dute eguzkitik datorren energiaren aprobetxamendu termikorako edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinak. Hobari horren aplikazioa beroa sortzeko instalazioek Administrazio eskudunaren dagokien homologazioa izateak baldintzatuko du.

19. Artikulua.- Familia ugariren titularitatea luketen subjektu pasiboek, hobaria izateko eskubidea izango dute, behean adierazitako koadroan adierazten den arabera, zergaren kuota osoari dagokion bezainbatean. Hobari horretaz gozatzeko aukera izateko, beharrezko izango da:

1.- Higiezina familia unitatearen ohiko etxebizitza izatea. Ondorio horietarako, ohiko etxebizitza dela joko da, familia unitateko kide guztiak errolatuak dauden hura.

SEME-ALABA KOPURUA	3	4	> 4
HOBARIA	30 %	40 %	50 %

Hobaria, subjektu pasiboak eskatu beharko du, eta eskariarekin batera, hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- 1.- Hobariaren eskariari dagokion idatzia, non ondasun higiezina identifikatuko den.
- 2.- Higiezinaren titularitatea egiaztatuko duen dokumentua.
- 3.- Familia ugariaren titulua, Bizkaiko Foru Aldundiak egina (Gizarte Ekintzako Saila).

Hobariaz gozatzeko epeak, familia unitateak familia ugariaren baldintza betetzen duen artean, iraungo du, eta subjektu pasiboak bere egoeran eman daitezkeen aldaketa ororen berri eman behar du; bestalde, Administrazioak bere gain gordetzen du hobaria ezartzeko beharrezko baldintzak betetzen ote diren egiaztatzeko eskubidea, zeina ofizioz egin ahal izango duen, eta hobaria bidegabeki disfrutatu dela egiaztatuko balitz, zergari dagozkion likidazio gehigarriak eta berandutze-interesak igorriko dizkioo, eta horrez gain, legokiokoen zigorra, izan ere, egite hori arau-haustea izango bailitzateke. Hala ere, egin daitezkeen aldaketei kalterik egin gabe, hobariaren amaierako data bezala, familia ugariaren titulua iraungitzen den data hartuko da."

IX.- SORTZAPENA

20. Artikulua.-

- 1.- Zerga, zergapezko epealdiaren lehen egunetik sortzen da.
- 2.- Zegaldia bat dator urte naturalarekin.

21. Artikulua.-

Zergapetutako higiezinak izan ditzaketen aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoek, aldaketa hori gertatu den zerga-aldian gabe, hurrengoan izango du indarra, eta eraginkortasun hori ez da dagozkion egintza administratiboen jakinarazpenaren menpe geratuko.

X.- ZERGAREN KUDEAKETA.

22. Artikulua.-

- 1.- Zergaren kudeaketa zerga beraren Erroldan oinarrituz egingo da, hori urtero egingo da udal barruti bakoitzarentzat, eta bere barnean, ondasun higiezinak, subjektu pasiboak eta balio katastralen erroldak sartuko dira, banandurik emanak landa-lurrentzat eta hiri-lurrentzat. Errolda hori jendaurreko egongo da, dagozkion Udaletxean.
- 2.- Zergaren erroldak Ondasun Higiezinak Zergari lotutako hiri-lurreko higiezin bakoitzari legokion zenbaki finkoa eukiko du.
- 3.- Urteko Erroldaren datuek, Ondasun Higiezinak gaineko Zergaren ordainagirietan, agertu beharko dute.

23. Artikulua.-

- 1.- Subjektu pasiboak hurrengo dokumentuak aurkezteko obligazioa izango dute, hain zuzen, zerga hori lotutako ondasunak non dauden kontuan izanik, horiek leudekeen Udalean, eta arauz ezarriko diren epeetan.

a) Eraikuntza berriak diren kasuan, horiei dagozkien altaren aitortpenak egin beharko dituzte.

b) Zerga honi lotuta dauden ondasunak eskualdatzen direnean, eskuratzailerak altaren aitortpena aurkeztu beharko du eskualdaketa eragiten duen agiriarekin batera; halaber, eskualdatzailerak bajaren aitortpena aurkeztu behar du, eta hor adieraziko ditu, eskuratzaileraren izena eta helbidea, ondasun horiek dituzten mugak eta beren kokapena, eskualdatutako eguna eta zein kontzeptupean egin den.

Eskualdaketa mortis causa egintzagatik bada, ezarriko den epearen hasiera, Oinordetzaren gaineko Zerga likidatu den datan emango zaio, eta oinordekoak bi aitortpenak egin beharko ditu, bai altarena bai bajarena.

c) Zergapetutako ondasunei dagozkien aldaketa guztiak, direla horiek bai maila fisikokoak, bai ekonomikokoak bai juridikokoak.

2.- Aurreko atalean aipatzen diren aitorpenak ez balira aurkeztuko, edo ez balira, horretan adierazitako epe barruan, egingo, egite hori zergari dagokion arau-haustea izango litzateke, eta 3.000 euroko diruzko isun finkoz zigortuko litzateke.

3.- Aitorpena egiteko obligazio luketen subjektu pasiboek, hain zuzen, aurreko 1. atalean aipatutako edozein transmisio edo aldaketa aitortu behar luketenek, dela dokumentuak formalizatzen diren unean, horiek nahiz publikoak nahiz pribatuak izan, dela prozedura judizial edo administratiboak izapidetzen direnean, non ondasun higiezinaren aldaketak nabarmen jarriko diren Foru Arauean araututa dagoenaren arabera, ondasun higiezinaren identifikazio katastrala egiaztatu beharko dute, horren baimen, inskripzio edo instrukzioa egiteko eskuduntza duten notarioen aurrean, erregistratzaileen aurrean edo, organo edo agintari judizial edo administratiboaren aurrean, eta horiek landa-lurrak direnean, poligono eta partzelaren zenbaki katastral finkoarekin egingo da, arauz ezarriko den terminoetan.

24. Artikulua.-

1.- Ondasun higiezinaren Katastroetan datuak barne hartzea, kanpo uztea edo horko datuak aldatzea egintza administratiboa dela jotzen da, horiek egin daitezke bestalde, katastroa berrikusteagatik, katastroko balioak finkatu, berrikusi eta aldatzeagatik, ikuskaritzaren jardueragatik edo altak eta jakinarazpenak egiteagatik, eta horrek jakina, Zergaren Errolda aldatzea ekarriko du.

Ondasun Higiezinaren Katastroetan dauden datuak oinarri harturik, Erroldan egin daitekeen edozein aldaketa egiteko, derrigorrezkoa izango da, aurretik Katastroan, aldaketa egina izatea.

2.- Datu katastralean eman daitekeen edozein aldaketa, zergaren subjektu pasiboari, jakinarazi beharko zaio, egintza administratiboaren jakinarazpenak arautzen dituen irizpide orokorren arabera.

3.- Gestio katastrala egiten duen organoak ezagutzen duenean, ezen datu katastralen eta higiezinaren errealitatearen artean desadostasunak daudela, eta desadostasun horren jatorria ez dela sortzen, aurreko artikuluan subjektu pasiboak aitorpena aurkezteko agertzen den betebeharra ez betetzeagatik, kasu horretan, interesatuari horren berri eman beharko dio, eta hamabost eguneko epea eman beharko dio, bere eskubideen alde egokien iritzitako alegazioak aurkez ditzan.

Aipatu epea igarotakoan, eta aurkeztutako alegazioak ikusirik, organo kudeatzaileak, ofizioz, datu katastralak aldatzeari ekingo dio, eta hori subjektu pasiboari jakinaraziko dio, administrazio egintzak jakinarazteko araututa dauden irizpide orokorren arabera.

Aipatu aldaketak, Erroldan, aldaketa hori egin ondorengo hurrengo zergalditik aurrera, izango ditu ondorioak.

4.- Artikulu honetako lehen, bigarren eta hirugarren ataletan deskribatutako egintzak inpuernatu ahal izango ditu partikularrak, aukera berraztertze helegitearen bitartez, edo zuzenean, erreklamazio ekonomiko-administratiboaren bitartez, helegite horiek jartzeko dauden epeetan.

25. Artikulua.-

1.- Ordainarazpen, kudeaketa, likidazio, ikuskaritza eta bilketari dagozkion eskumenak, bai borondatezko epean, bai exekuzio epean, eta horrekin batera, baita, zerga-gestioaren bidean emandako egintzak berrikustea Udalari dagokio, hain zuzen, zergapeko ondasunak leudeken udal barrutikoari.

2.- Zehazki Udalari dagozkio, bai salbuespenak eta hobariak eman eta ukatzea, bai zerga-zorrek zehaztera zuzendutako likidazioak egitea, bai kobrantzako dokumentuak egitea, bai zor ez diren sarreraren itzulketa-espedientei ebazpena ematea, bai aipatu egintzen aurka jarri daitezkeen helegitei ebazpena ematea, bai paragrafo honetan barne sartutako gaietara buruz zergadunei laguntza eta informazioa ematea.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaz gain, ordenantza honetan aurrikusitako salbuespenak eta hobariak eman eta kentzeko, beharrezkoa izango da, edozein kasutan, eskumena duen Udalak hartutako ebazpenaren berri Foru Aldundiari heleraztea.

3.- Tributuarien ordainketa errazteko helburuz, Udalak bere ordainketa zatikatu ahal izango du ekitaldian zehar, berandutzeari legozkion interesak eskatu beharrik gabe, eta bermerik eskaini beharrik gabe.

4.- Udalak kobrantzako dokumentu bakar batean batu ditzake zerga honen kuota guztiak, subjektu pasibo berari legozkionak, baldin eta udalerri berean kokatutako landa-ondasunak balira.

26. Artikulua.-

1.- Bizkaiko Foru Aldundiari edo Basauriko Udalari egokituko zaio, horretarako izenpetuko diren Elkarlaguntzarako Hitzarmenetan zehaztutako denaren arabera, horiek behin Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan, balioei buruzko txostenak egin eta onestea, hala ere horren aurretik lurzorua mugatu, eta balio katastralak finkatu, berrikusi, aldatu eta eguneratu egin beharko dira, eta baita, Higiezinaren Katastroarekin lotuta dauden prestakuntza, kontserbazio, berrikuntza, berrikuspen eta gainerako funtzioak bete beharko dira ere.

2.- Pertsona natural edo juridiko, publiko edo pribatu orok, Katastroarekin lankidetzan, jardun behar du, martxoaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 92 artikuluen arabera, eta zergarekin zerikusia izan lezakeen mota guztietako datuak, txostenak edo aurrekariak eman beharko ditu, hain zuzen, beste pertsonekin eukitako harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioetatik ondorioztatzen direnak, baldin eta horiek Higiezinaren Katastroko datu fisiko, ekonomiko eta juridikoak osatzeko, mantentzeko edo eguneratzeko interesgarri balira.

3.- Herri Administrazioek, orokorki, eta martxoaren 10eko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 93 artikulua aipatzen dituen gainontzeko Erakundeek obligazioa dute, aipatutako artikuluan adierazitako terminoetan, Katastroa egin eta mantentzeko garrantzitsuak izan daitezkeen datu eta aurrekari guztiak Katastroko Zerbitzuari emateko, horrela eska daitekeenean, bai errekerimendu konkretu bidez, bai izaera orokorreko xedapenetan oinarritutako errekerimendu bidez.

27. Artikulua.-

1.- Udalak egindako egintzen aurka, egintza horiek Bizkaiko Foru Aldundiak eskuordetutako ahalmenen egikaritzan eginak izango dira, interesatuek, nahi izanez gero, berraztertzeke helegitea jarri dezakete, baina baita erreklamazio ekonomiko-administratiboa era jarri dezakete Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren aurrean, hurrengo modu eta epeetan, hain zuzen, zerga gaietan, Foru Aldundiak egindako egintzen aurka egiteko, jarri daitezkeen aipatu errekurtsoen Arautegian ezarritako modu eta epeetan.

2.- Udalak egindako egintzen aurka, bereak diren ahalmenen egikaritzan egindakoak, jarri daitezkeen helegiteen erregimena ohikoa izango da, hain zuzen, Toki Erregimenaren eta Toki Ogasunaren legerian ezarrita dagoenaren arabera.

3.- Edozein modura, Udal Administrazioak interesatuak jakinean jarriko ditu, horiei eragiten dieten ebazpenen jakinarazpenetan, kasu bakoitzari dagokion helegiteen erregimena.

28. Artikulua.-

1- Errolda, eskumena onartua lukeen Administrazioak prestatuko du, hain zuzen, helburu horrekin izenpetutako Hitzarmenaren arabera onartua lukeenak.

2.- Edozein modura, Udalak jendaurreko jarriko du hamabost eguneko epean, horrela, interesaturik leudekeen zergadunek hori aztertu, eta bere kasuan, egoki lerizkien erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

XEDAPEN GEHIGARRIA.

Lehenengo.-

7 d) artikuluan xedatutakoaren ondorioarako, eta gai ekonomikoen gainean Espainiaren eta Egoitza Santuaren arteko Hitzarmena indarrean legokeen bitartean, 1979ko urtarrilaren 3koa, hurrengo ondasunak salbuetsiak egongo dira:

a) Gurtzara dedikatutako elizak eta kaperak, halaber, horien lokalak edo jarduera pastoralera destinatutako eta hari erantsitako eraikinak.

b) Apezpikuen, Kanonigoen eta animak zaintzen dituzten Apaizen egoitzak.

c) Bulegoetara, Kuria diozesiarrera eta parroko bulegoetara destinatutako lokalak.

d) Apaiz diozesiarrak eta erlijiosoak prestatzera dedikatutako Apaizgaitegiak eta Elizaren Unibertsitateak, baina elizaren irakasgaietarako dagozkien gaiak irakasten dituzten heinean.

e) Funtsean Erlijioso Ordenetako eta Kongregazioetako Etxe edo Komentuetara eta bizitza konsagratutako Institutuetara destinatutako eraikinak.

Bigarrena.

Balio katastrala merkatuko balioarekin hobeto modulatzeko helburuz, balio katastrala finkatu, berrikusi eta aldatzeko prozeduretan, balio-txostenetik ondoriozta daitekeen balioari, araubidez ezarriko den koefizientea aplikatuko zaio.

Hirugarren.

Hiri-lurretako ondasun higiezin erabilera desberdinei egindako Gutxienezko Balio Atxikigarriaren esleipena zabaltzen doan heinean, egoki denean, horien balio katastrala erabakiko da, dagokion Foru Arauean araututako prozedurari jarraiki, eta erreferentzia gisa, Gutxienezko Balio Atxikigarria lortzeko oinarri izan ziren balorazioko arau teknikoak eta balioen koadro-markoa hartuko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1. Hiri-izaerako ondasun higiezin gaineko zergei dagokionez esan behar da, 1990eko urtarrilaren 1ean indarrean zeuden Hiri Lurraren Kontribuzioko balio katastralak aplikatuko direla, behinik behin Ordenantza honetako arauen arabera horiek zehazten ez diren bitartean.

2. Landa-lurretako ondasun higiezin gaineko zergari dagokionez, hori aurreko paragrafoko inguruabar berberetan galdatuko da, eta ondasun horien balio katalak gisa hartuko da, 1990eko urtarrilaren 1ean Landalur eta Abere Kontribuziorako indarrean zegoen oinarri likidagarrien zenbatekoaren gainean, % 3an kapitalizatu ondoren, gertatzen den emaitza.

3.- Ondasun Higiezin gaineko zergari aplikatu dakizkiokeen onura fiskalak, Foru Arau hau indarrean sartzean ezagutuak egon daitezkeenak, zeinaren gozameneko kasuak bertan jasoak egongo diren, mantenduko egingo dira, eta nahiz eta eskabidezkoak diren, ez dira berriro eskatu beharko. Aipatu zergan ezagututako onura fiskalak mantendu egingo dira, horien iraungitze-data arte, nahiz eta jaso gabe egon Foru Arau honetan, horiei dagozkien gozamen-kasuak.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2008ko irailaren 25eko osoko bilkuran.)

ERANSKINA

Karga-tasa

Hiri-lurretako Ondasunak	1,237
Hiri-izaerako ondasunak, MERKATAL ERABILERA, 400.000 eurotik gorako balio katastrala	1,360
Landa-lurretako Ondasunak	0,436